

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko azaroaren 15a. IX. urtea. 2.434. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Kilometroetako leloa eta logoa aurkezteko jaialdia egingo dute Leidorren

Tolosako Laskorain Ikastolak antolatuko du 2013ko jaia; hilaren 23an izango da aurkezpen ekitaldia, eta sarrerak salgai daude 02

Ruben Saralegi Aizkolaria

«Biharko txapelketan mailaz igotzeko esperantza badut»

Leitzarrak eta Pellejero aresoarrak Nafarroako Bigarren Mailako finala jokatuko dute, bihar 06

Sukaldaritza ikastaroa eskainiko dute Villabonan

Irrintzi elkartearen izango dira eskolak azaroaren 19tik abenduren 17a arte eta izena emateko azken eguna da gaur; abenduaren 19an ardoa eta gazta dastatzen ikasteko aukera egongo da 03



→ **Guatemalako emakumeen egoera, gertuago.** Tolosako Aranburu jauregian, alfabetizazio mailarik baxuenetakoa duen herrialdeetako baten inguruko erakusketa ikusi daiteke; Guatemala. Tolosako Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gaietarik elkarteak osatutako egitasmo zati bat da eta argazkiak dira protagonista. 04

Etzi goizean hasiko da Berrobiko Frontenis Txapelketa

135 pertsonen hartuko dute parte; lehen aldiz, neska eta mutil banak osatutako bikoteak ariko dira 07

Langileek ez dute CCOOren eta UGTren greba babestu

Tolosaldeko zein Leitzaldeko kaleetan zein industrialdeetan ohiko mugimendua zegoen atzokoan; greba orokorra egiteko deialdiak ez du ia eraginik izan 05



AZAROA 15 - 18
TOLOSAKO
BABARRUNAREN
ASTEA 2012

AZAROAK 17 TOLOSAKO
BABARRUN EKIZIAREN
LEHAKETA ETA AZOKA BEREZIA

AZAROAK 18 LEHAKETA BASTRONOMIA
ETA BAZKARI HERRIKOA



AZOKA BEREZIA:

OKAZO BERTAN HAZI ETA EGUREREN ZAK BIRARTEAN, TRAMUOLA PLAZAN EDUEN LABELA DUEN BABARRUNA IZANGO DA HAZI, HAZI ETA HAZIEN LOTURUN HAZIAT PRODUKTU ERE JAKERARI IZANGO DUEN BARRAKO PAPAN, BARAZKAK, ODOKIA, SAHESKIA, URDUA, ANDOA...

Azaroaren 23an aurkeztuko dute Kilometroak jaia, Leidor aretoan

Helburu ekonomikoaz haratago, Tolosako herria euskaraz hitz egitera bultzatu nahi dute

Itzea Urkizu

Jakinmin handia pitzen ari dira, 2013ko Kilometroak festako leloa nahiz logoa. Datorren azaroaren 23an, Leidor aretoan izango da jaiaren aurkezpena, eta hamaika ikuskizunez gozatzeko aukera izango dute bertaratuek.

Kilometroak 2013 hemen da! izenburupean, bi emanaldi egingo dituzte; 18:00etan izango da bata, eta 20:00etan bestea. Ordu bete inguruko ikuskizunean, besteak beste 2013ko urriaren 6an izango den Kilometroak jairako aukeratu duten leloa ezagutarazi-

ko dute: «Oso ausarta da, eta zeresana piztuko du, beraz, ezagutu nahi duen oro etor dadila Leidor aretora», azaldu dute antolatzaileek. Kilometroaren aurkezpen ekitaldiko sarrerak salgai dira jada, 2 euroren truke, Orbela eta Ikatza tabernetan, eta baita Laskorain ikastolan bertan ere. Aurkezpenaz gain, esketxak, musika, dantzak, bideo emanaldiak eta arropa desfilea ere izango dira, eta ikuskizunean erakutsitako arropa eta materiala azaroaren 24tik aurrera eskuratu ahal izango da, Tolosako Korreo kalean zabalduko duten denda iraunkorreen.

Tolosako Laskorain ikastolak hainbat urte zeramatzan, Kilometroak antolatzeko txanda eskuratzearan zain. Azken urteotan matrikuluen kopurua nabarmen igo dela eta, maila bakoitzean lau gela osatzeko beharra ikusi zuen Tolosako ikasto-



Pasa den urriaren 7an jaso zuen, Laskorain ikastolak, Kilometroak festako lekukoa. HITZA

lak, eta azpiegituren beharra ezinbestekoa da horretako.

Modu honetara, joan den urtera arte Sakramentinoetako apaizena zen lurra eta eraikina erosi zituen Laskorainek, lehen frontoia zen lekuan, haur eta gazte-oxozako ikasgelak eraikitzeko. KMK jaiak dakarren onura eko-

nomikoaz haratago, ordea, beste-lako helburuei ere berebiziko garrantzia eman nahi die antolatzaileek. Euskara maitatzetik edo sentituzetik, erabiltzerako pauso hori ematea lortu nahi dute.

Ikastolen proiektuak euskararen normalizazioan izan duen arrakasta herritarrei helaraztea-

rekin batera, Tolosa osoa inplikatu nahi dute proiektuan: «Tolosan euskararen inguruan mugimendu gehiago sortzea nahi dugu, eta herria, euskaraz hitz egitera bultzatu nahi dugu. Euskaraz badakigun arren, sarri oso erraz jotzen baitugu gaztelerara», azaldu dute antolatzaileek.

Hansel eta Gretelen istorioa kontatuko dute txotxongiloek

Datorren azaroaren 24an hasiko den Titirijai jaialdirako sarrerak eskuragarri daude jada

I. Urkizu

20 txotxongilo baino gehiagoren bidez, La Tartana talde madrildarrak Engelbert Humperdinck-en *Hansel eta Gretel* opera ezaguna taularatuko du Topic zentroko oholztan.

Askotariko teknikak, argi-itza-

lak eta koloreak erabiliko dituzte, basoko zuhaitz bakoitzak ezkutatzeko duen magia haur eta gazte-oxoei erakustarazteko, istorio ezagunean barrena. Horrela, Hansel eta Gretel gozokizko etxetxora iritsiko dira azkenean, 45 minutuko ikuskizunean.

1977an eskani zuen, lehen ikuskizuna, La Tartana konpainiak. Haurrei zuzenduriko ikuskizunean, ordea, 1996. urtean hasi ziren, *La roca y la colina* emanaldiarekin.

Orduz geroztik, beren esperientzia eta teknikaren ezagutza, pedagogiari eta hezkuntzari loturi-

ko jarduerekin uztartzen dute, eta beraz, istorioak kontatzean haratago, mundu bat birsortzen dute.

Ikusleak unibertso hauetara bideratzeko, bereziki zaintzen dute beren ikuskizunetako estetika, eta baita eszenografia ere.

Txotxongiloen opera eskainiko du La Tartana konpainia madrildarrak

Sei urtetik gorako haurrei begirako ikuskizuna izango da larunbat honetako txotxongiloen opera. 18:30ean hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak eskuragarri



Hansel eta Gretel. HITZA

daude jada, Topic zentroko leihtailan, nahiz www.topicitolosa.com webgunean. Haurrek 4 euro ordaindu beharko dute, eta helduek, berriz, 7 euro. Familia ugariaren kasuan, haurrek 3 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera, eta helduek 5 eurotan.

Titirijaiako sarrerak salgai

Datorren azaroaren 24an hasi, eta abenduaren 2ra arte luzatuko dira, 30. Titirijaiako ikuskizunak.

Aurten, txotxongilo konpainien arteko elkartrukea izango da jaialdiaren muina, eta ikuskizun guztietako sarrerak eskuragarri daude jada.

Batetik, www.topicitolosa.com webgunean erosteko aukera izango da. Era berean, Topic zentroko bulegoetan ere salgai izango dira. tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Alpino Uzturre Bizkaiko muinoetara igandean

MENDIA › Tolosako Alpino Uzturre Elkarteak mendi irteera antolatu du, datorren azaroaren 18rako. Txangoa Trabakua mendatea eta Etxebarriaren arteko ibilbidea burutzea izango da. Mendibil (610 m.), Urko (793 m.) eta Kalamua (768 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusaren irteera 08:00etan izango da, San Frantziskotik, eta ibilaldiak 5 ordu iraungo du. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek, berriz, 13 euro. Izena emateko, alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatz daitezke, edo 943 65 27 89ra deitu.

Santa Zezilia kontzertua, igandean, Leidor aretoan

MUSIKA › Igandean, 12:15ean, Santa Zezilia kontzertua izango da, Leidor aretoan, Tolosako Musika Bandak antolatuta. Tolosako Txistulariak, Tolosako Dultzaineroak eta Giroarte dultzaina taldea ariko dira lehen zatian. Bigarren zatian, berriz, Tolosako Musika Bandak hiru obra eskainiko ditu oholztan gainean.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Villabonako sukaldaritza ikastaroan izena emateko epea gaur amaitzen da

Udalak webgune berritua jarri du martxan, «gobernu ireki bati ekiteko» helburuarekin

Asier Imaz Amasa-Villabona

Sukalde munduaren inguruko ezagutzan duen ororentzat ikastaro antolatuta dute Villabonan. Bertan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, eta horretarako epea gaur amaituko da. Ikastaroa azaroaren 19tik abenduaren 19ra izango da, Irrintzi Elkartean, astelehenera eta astezkenetan 19:00etatik 21:00etara. Billabonarek 58 euro ordaindu beharko dute, eta kanpokoek 75 euro, matrikula moduan. Informazio gehiagorako udaletxera jo, 943 69 16 55 zenbakira deitu edo kultura@villabona.net helbidera idatzi behar da.

Udalaren webgune berria

Villabonako Udalak antolatuta duen sukaldaritza ikastaroaren inguruko informazioa, www.villabona.net webgune berrituan dago. Hain zuzen ere, udalak webgune berria martxan jarri dutela jakinarazi du: «Helburu, diseinu eta eduki berriez betea dator. Udalarentzat funtsezko komunikazio tresna da martxan jarri berri den webgunea. Amasa-Villabonako Udalaren helburua gobernu ireki bati ekitea da, hots, elkarrizketan, parte-hartzean, gardentasunean eta komunikazioan oinarritzen den administrazioa lortzea».

Partaidetza sustatzeko eta he-

↓ Sukaldaritza ikastaroa

AZAROA 19, ASTELEHENA

■ Saldak eta oinarriko saltsak, hegaziak zatikatzea eta oilaskoa pepitorian.

AZAROA 20, ASTEARTEA

■ Behi-masailak saltsan eta eskalibada.

AZAROA 26, ASTELEHENA

■ Barazki panaxea, usakumea ehiztariaren erara eta salmisia.

AZAROA 28, ASTEAZKENA

■ Barazkiak tenpura eta txerri azipuzin lakatua sagar purearekin.

ABENDUA 3, ASTELEHENA

■ Legatz bete bi saltsarekin eta arroz esnea.

ABENDUA 5, ASTEAZKENA

■ Entsalada epela, lupia piper

rritarren eta udalaren arteko harreman zuzena indartzeko berri-tu dute www.villabona.net, baina baita bisitariari begira ere. Azken hauek, galderak, iradokizunak eta kexak adierazteko aukera izango dute webgune honen bitartez.

Udaletik aipamen berezia egin

beltz berdean eta fumeta pres-tatuko dituzte.

ABENDUA 10, ASTELEHENA

■ Arrain zopa Donostiako eran eta xapoa saltsa amerikarrean.

ABENDUA 12, ASTEAZKENA

■ Txokolate moussea, torrada karamelizatuak, intxaursaltsa eta mamia intxaurre garripina-tuekin.

ABENDUA 17, ASTELEHENA

■ Platerean aurkezteko erak: entsaladak, tartarra eta aparrak.

ABENDUA 19, ASTEAZKENA

■ Ardoa eta gazta dastatzeko saioa Aljibearen, Mikel Garaizabal enologoaren eskutik. Getariko txakolina, Bizkaiko txakolina, Arabako txakolina, Arabako Errioxako ardo beltza eta Idiazabalgo bi gazta dastatuko dira.

nahi izan diote eskuin aldeko zutabea atalei, bertan herriarekin lotura zuzena duten gaiak jorratzen baitira; parte-hartzea, Ados! lan-mahaiak, errebotea, euskara, ingurumena, udal aartxiboa, edo Vicente Ameztoi handiari omenaldi gisa eskaini zaion txoko berezia.

Kultur eta Kirol Astearen azken txanpan, Kiliklon

Ostiralean Euskal Jaietako proiektzioa eta 'Sua' filma ikusteko aukera egongo da Mikelasagastin

A. Imaz Anoeta

Anoetako Kultur eta Kirol Astea aurrera doa, eta asteburu honetan amaituko da. Ostiralean, *Sua* filma ikusteko aukera egongo da Mikelasagasti auditorioan, 22:15ean, eta egileak etorriko dira filma aurkeztera. Horren aurretik, 21:30ean, toki berean, urriaren 14an ospatu zen Euskal Jaiaren bideoaren emanaldia egingo da.

Larunbatean, 11:30ean gazte eta helduen krosa egingo da, plaza-abiaturak, eta ondoren bertso bazkaria Kuku Elkartean Amaia Agirre, Ander Lizarralde eta Iban Urdangarinek. Eguna amaitzeko, gaztaina jatea egingo dute plaza, Anoetako Gazte Asanbladaren eskutik.

Horrez gain, udaletik gogoratu dutenez, aste osoan ikusgai egongo da kiroldegiko sarreran, Mendebaldeko Saharari buruzko *Hodeien seme-alabak* erakusketa.

Kiliklon festa

Haur eta gaztetxoentzat ekimen berezia antolatuta dute Anoetako Kultur eta Kirol astearen barruan: hiru egun iraungo dituen Kiliklon festa. Gipuzkoan lehen aldiz ariko dira, eta antzerkiak, kontzertuak, abentura berriak, herri kirolak, jolasak, musika eta abarrez gozatzeko aukera edukiko dute haur eta gaztetxoek, baita gurasoek ere.



Kilikloneko lagunak. HITZA

Ostiralean, 17:00etatik 20:00etara gaztelu puzgarriak, jolasak, haurrentzako herri kirolak eta tailerrak egongo dira.

Larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko ditu ateak Kiliklonek. Ostiraleko ekimenez gain, 12:00etan Euskaraokoa eta 17:30ean Kortxea doktoarearen abenturak ikusteko aukera egongo da.

Igandean, larunbateko ordutegi bera izango du Kiliklonek. 12:00etan, berriro Euskaraokoz gozatzeko parada jarriko dute, eta 17:30ean Tatxin Tatxan antzerki animazioa egongo da.

Hiru egunetan zehar gurasoentzat taberna zerbitzua eta haur-tzaindegia egongo dira.

Sarrerak unean bertan erosi ahal izango dira. Egun erdia egon nahi duenak, 6 euro ordaindu beharko ditu; 10 euro egun osoaz gozatu nahi duenak eta bi eguneko sarreraren kostua 18 eurokoa da.

Jaialdi oparo honen inguruko informazio gehiago lortzeko, www.kiliklon.com webgunea jarri dute interesatuen eskura.

→ Laburrak

Maider Eizmendik lortu du Zizurkilgo Udalaren beka

ZIZURKIL ▶ Udalak *Emakumea Zizurkil*en beka eskuratzeko aukera zabaldu zuen. Bi lan aurkeztu ziren, eta epaimahaiak Maider Eizmendi herritarren lana aukeratu zuen. Ondorioz, 3.000 euro izango ditu Maider Eizmendik urte erdian Zizurkilgo emakumeek bizi duten egoera aztertzeko. Udala, kultura eta kirola, hezkuntza, lan mundua, emakumeen aurkako indarkeriaren datuak... moduko arloak aztertuko ditu Eizmendik.

Egutegiko argazkiak aukeratzeko aukera

ANOETA ▶ 2013ko egutegiko argazkiak aukeratzeko epea bihar amaituko da, azaroaren 16an. Kiroldegian eta www.anoeta.net webgunean egongo da horretarako aukera. Bakoitzak bost argazki bozkatzeko aukera izango du.

Jone Gorostartzuk bere liburua aurkeztuko du

TOLOSA ▶ III Akademiaren Kilikerren Soka IV eta Literatur & Art ekimenen barruan Jone Gorostartzuk *Des egiten* liburua aurkeztuko du gaur, Tolosako Bonberenean, 19:00etan. Leire Zubeldia izango du bidaide.

Adinekoen inguruko hitzaldia Urkizun, gaur

TOLOSA ▶ Urkizuko Alur Txiki elkartearen hitzaldia antolatuta dute, gaur, 15:00etan. *Adineko-laguntzeko baliabideak* gaia aztertuko dute bertan, Ana Lozano hizlariaren laguntzarekin. Herritar guztiak gonbidatu dituzte elkartera.

Ibarrako Herriak batzarra egingo du asteartean

IBARRA ▶ Gabonetako plangintzaren eta urtarillaren 12ko manifestazioaren inguruan hitz egiteko, Ibarako Herriak batzarra egingo du azaroaren 20an, asteartean, 19:30ean kultur etxean.

Euskal Herriko V. Mus Txapelketako lehiak

KULTURA ▶ Euskal Herriko V. Mus Txapelketaren kanporaketak hasi dira eskualdean. Aduan bihar, azaroaren 16an, jokatuko dira partidak, Txulobi Elkartean, 21:30ean. Alegian, aldiz, kanporaketa hilaren 24ean izango da, 16:00etan, Hilario tabernan.

Josu Bereziartuaren emanaldia hilaren 19an

VILLABONA ▶ 29. Mendi Astea astelehenean hasiko da Josu Bereziartuaren emanaldiarekin: *Broad Peak 2010*. Aizkardik antolatutako ekimena Gurean izango da, 20:00etan.

II. Jostailuen Trukerako Azoka antolatzen ari dira

ZIZURKIL ▶ II. Jostailuen Trukerako Azoka antolatzen hasiak dira Zizurkil. Ekimena martxan jartzeko arrazoiaren artean, antolatzaileek «bizi ditugun garaik eta etxeetan pilatzen ditugun jostailu kopurua» eta iazko azokaren arrakasta aipatu dituzte. Azoka azaroaren 23an 17:00etatik 19:00etara eta azaroaren 24ean 16:00etatik 20:00etara irekiko dute. Jostailuak Atxulondo kultur etxean utzi beharko dira, eta horretarako hiru egun jarri dituzte: azaroaren 19a, 20a eta 21a. Orduetgia ondorengo izango da; 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Alfabetizazio mailarik baxuenetakoa duen munduko herrialdea da Guatemala. Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gaietik elkarteak osatutako egitasmoaren zati bat da, Aranburu jauregiko erakusketa.

Hezkuntza duin baterantz, elkartasunaz

Itzea Urkizu

Hezkuntza, generoa eta elkartrukea dira, Guatemalako Ixil zonaldeko emakumeen irudiak biltzen dituen Aranburu jauregiko erakusketaren oinarria. Tolosako Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gaietik taldeak, elkarlanean antolatuta dute egitasmoa, eta erakusketa hilabete osoan izango da ikusgai, asteartetik ostiralera, 17:30etik 20:00etara bertan.

Badira jada 20 bat urte, Mugen Gaietik elkarte Guatemala lanean hasi zela, eta azken 8 urteotan, Ixil zonaldean ari dira. Elkarteko Seve Zubirik aurkezpenean azaldu zuenez, oso eremu txiroa da: «Genozidioaren inguruko kasuak zirela eta joan ginen hara lanera, eta jende asko ezagutu genuen. Hauen bidez, inguruko beharrak ikusi genituen; osasuna, elikadura, hezkuntza eta genero

ikuspegia ziren sendotu beharreko esparruak».

Horrela, beraz, baratzeak sortzen, negutegiak eraikitzen, bertako animalien hondakinekin ongarria egiteko teknikak irakasten, botika generikoen saltoki txikiak sortzen nahiz janaria be-

Inmakulada ikastetxeak bi beka sortuko ditu, ikasleak Guatemala joateko

Mugen Gaietik-ek azken urteotan ateratako argazkiak daude ikusgai

rotzeko suak ipintzen aritu dira, azken urteotan, Mugen Gaietik elkarteko kooperanteak.

Jarduera hauekin guztiak ari zirela, «bertako emakumeen proiektuan zuzenki sartzeko garaia»

iritsi zela erabaki zuten elkarteak; orduan hasi ziren, beraz, genero ikuspegian eta emakumeen alfabetatzean sakontzen.

Inmakulada ikastetxeak, berriaz, formazio integrala eskaintzea helbururik behinenetakoa izanik, baloreak lantzeari «berebiziko garrantzia» ematen diotela nabarmendu zuten ikastetxeko Amaia Karrera. Bide honetan, eta beren ikasleak «etorkizuneko langile» izango direnez, zeharkako ildoak txertatzen dituzte hezkuntza plangintzan: «Gure ikasleek etikaz jantzi behar dute euren lanbidea. Horregatik, elkartasunarekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditugu urtero, nolabaiteko baztertzea jasan dezaketen kolektiboenguruz».

Jakituraren elkartrukea

Guatemala da, Haitiren ondoren, alfabetizazio maila baxuena duen munduko herrialdea. Herritarren %70a indigena da, eta 20 hizkuntza inguru hitz egiten dituzte bertan.

Generoen arteko desberdintasuna medio, emakumeen hezkuntza maila are baxuagoa da. Honegatik guztiagatik, Mugen Gaietik elkarte behar handienak identifikatzen hasi zen, garapenera begira. «Kooperazioa garrantzitsua da, baina garapena ere bai», dio Seve Zubirik.

Aurten, ikastetxeaz kanpora begirako zerbait egin nahi izan dute Inmakuladako arduradunek, eta Mugen Gaietik elkartearen lanaren berri izan zutenean, egokia iruditu zitzaizkien beren ikasleentzat. Horrela, beraz, epe ertain eta luzeko egitasmoa mar txan jarri dute bi erakundeek.

Batetik, ikasgeletan Mugen Gaietik taldeak egiten duen lanaren berri eman, eta proiektua bera elikatzeko ideiak sakonduko dituzte ikasleekin. Modu honetara, ekarpenak bilduko dituzte Guatemalako Ixil zonaldeari laguntzeko.

Era berean, bi beka sortuko ditu Inmakulada ikastetxeak, osasun arloko bi ikasle Guatemalana joan daitezke: «Euren formazioa eskainiko dute Guatemalan, eta hango esperientziarekin ere eurak formatuko dira». Erakunde bateko nahiz besteko arduradunek, elkartrukearen garrantzia azpimarratu dute, honen harira: «Hezkuntza maila baxua izanagatik ere, bertakoek badute zer irakatsia».



Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



hitza info harremanetarako: 902 82 02 01 harpidetza@hitza.info

la eraginik ez CCOOk eta UGTk deitutako greba orokorrak

Saltokiak eta enpresak ez dira itxita egon; enpresetan ez dela batzar loteslerik egin esan dute CCOOtik

Imanol Garcia Landa

CCOO, UGT eta LSB sindikatuek atzoraroko deitutako greba orokorrak ez du eragin nabarmenik izan Tolosaldean eta Leitzaldean. Kaleetan ohiko mugimendua ikusi zen, atzo; taberna eta dendak irekita eta jendea gora eta behera, lanerako bidean, erosketak egiten... Industrialdeetan ere auto mugimendua egon zen, eta tailer eta lantokiak irekita izan ziren, lanean.

Garraio publikoari dagokionez, Renfeko aldiriko trenetan izan zuen eragina greba deialdiak, izan ere, Renfen gutxieneko zerbitzuak izan zituzten, eta ohikoa baino tren gutxiago egon ziren. Eskualdeko udaletxeetan ere ohiko zerbitzua eskaini zen oro har, eta baita osasun etxeetan ere; Tolosako anbulatorioan, esaterako, gutxi gorabehera ohiko zerbitzua eskaini zutela azaldu zuten.

Tolosako kaleek ohiko itxura izan zuten: Korreo kalea edota Trianguloa plazan egunerokotasuna izan zen nagusi. Apatta industriagunean eta Tolosako Usabal industriagunean enpresak irekita egon ziren.

CCOO sindikatuko Jose Mari Garciak azaldu zuenez, «oroko-

rrean Gipuzkoan ez da eragin handirik izan. Enpresetan orokorrean ez da batzar loteslerik egin, eta egin denetan, ordezkariak handirik ez dugunez, ez da atera greba egitea». Enpresetan langileek bere aldetik greba egin duten jakitea ezinezkoa dela gaineratu zuen Garciak. Bestalde, CCOOko ordezkariak ez zuen begi onez

ikusi sindikatu abertzaleek greba orokorrean ez parte hartu izana: «Langile klaseak bat egin behar dugu horrelako borroketan. Europa guztiak bat egin du eta auzartak izateko unea da gure esku-bideen defentsan». Donostian egin zituzten manifestazioak, eguerdian eta arratsaldean, greba deitu zuten sindikatuek.



Tolosako Korreo kalea, atzo goizean. I.G.L.



Kutxa Bi
Bermatua plan Berria
2018ko uztaila

Kutxabankak bazkideari emandako berria: 2016/07/30ean planaren balioa 2013/01/18koa gero %20,96 (3,50% UTB) baino txikiagoa bada, falta den aldea ordainduko da.

Etorkizunerako plan ona, bermatuta.

%3,5^{eko} UTB

+ Kutxabank gordailua urte baterako %4^{arte}

Interesak hiru hilero ordainduz. Bermatutako Planaren UTB bateratua + Kutxabank gordailua: %3,57%

*Bermatutako Planaren berria, baina berria: ez du 2018an bermatutako aldea ordainduko duela esan. Egutegian azaltzen da.

KUTXA BI.
S.P.A.

ibili dabilzan planak.

Kutxabank, Bankiko Inbentarioa eta Inbentario Inbentarioa




Usabal industriagunea, atzo. I.G.L.



Apatta industriagunea, atzo. I.G.L.

Ruben Saralegi ◉ **Aizkolaria**

Euskal Herriko Hirugarren Mailako Aizkora Txapelketa irabazi berri du, eta ondorioz, datorren urtean bigarren mailan lehiatuko da. Nafarroako maila nagusira igotzeko lehiatuko da bihar, Donezteben.

«Nire helburua, aizkolaria guztiena bezala, lehen mailara igotzea da»

Iñigo Terradillos Leitza

Herri kirolak txiki txikitatik eza-gutu izan ditu etxean Ruben Saralegi (Leitza, 1990). Esteban aitona garaiko aizkolaria handiak prestatzen zituen, eta bere seme-alabei aizkoraren munduarekiko zaletasuna igorri zien. Aizkolaria handia izan zen Rubenen aita, Nartxi Saralegi, eta baita izeba Kristina ere, emakume aizkolaria onenatarikoa. Seme gazteena, Mieltxo, harri jasotzen nabarmendu zen. Ruben Saralegi ere hasia da bidea egiten aizkora. Iragan igandean Euskal Herriko Hirugarren mailako Aizkora Txapelketako txapela jantzi zuen, eta bihar, Nafarroako Bigarren Mailako jantzeko itxaropena du.

Gustura pasa den igandean lortutakoarekin, ezta?

Oso pozik nago. Euskal Herriko Txapelketa irabaztea zen aurtengo nire erronka, eta lortu dudanez, oso gustura nago.

Orain arte irabazi duzun txapelketarik handiena izango da.

Urrezko Aizkora, binakako txapelketa bi aldiz irabazia dut, baina, Euskal Herriko ez nuen inoiz irabazi, beraz, lortu dudana txapelik garrantzitsua da.

Nola ikusi zenuen zure burua finalean?

Oso ongi ikusi nuen. Lehenengo enborretik aurretik jarri nintzen, bigarren enborrean alde areagotu nuen, eta hortik aurrera alde hori mantentzea izan zen nire helburua. Eta horrela izan zen azkenean, beraz, oso pozik.

Datorren urteatik aurrera, Euskal Herriko Txapelketako Bigarren Mailan lehiatuko zara, eta arerio gogorragoak izango dituzu aurrez aurre. Zer sentitzen duzu?

Gogotsu nago, eta ez dut beldurrik sentitzen. Gogor entrenatu beharko dut, eta hor ere maila ematen saiatuko naiz. Agian orain arte baino gogorrago egin beharko dut lan, arerioak indar-

tsuagoak izango direlako. Dena den, nire helburua lehen mailara igotzeko lehia horretan aritzea izango da.

Hurrengo erronka bihar duzu. Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu duzu Donezteben.

Euskal Herriko Txapelketa irabazi eta gero, konfiantza handia dut nire buruarengan. Animo handiarekin noa biharko txapelketa, eta lan txukuna egingo dudala uste dut.

Bost aizkolaria ariko zarete txapelaren lehia eta lehenengo biak lehen mailara igoko dira. Espero al duzu goiko postuetan amaitzea?

Beste aurkariei dagokionez, ez dakit ze maila emango duten. Bost horietatik hiru Euskal Herrikoan ere aritu ziren, eta han ni gainetik aritu nintzen. Beste biak, berriz, aspaldian ez ditut lanean ikusi, beraz, ez dakit zer egingo duten. Baina, hori bai, nik ahal dudana guztia emango dut.



HITZA

Mailaz igotzeko esperantza baidut.

Norekin entrenatzen duzu normalean?

Batzuetan osaba etortzen zait laguntzera. Beste batzuetan, berriz, bakarrik aritzen naiz, edo bestela Eneko anaiaarekin.

Aizkora odolean daramazun zerbait dela esan daiteke.

Txiki txikitatik hasi nintzen aizkora. Izan ere, etxean beti ikusi izan dugun zerbait da, aita aizkolaria baitzen, eta osabak eta izebak ere bai. Sei urte nituela egin nuen nire lehen erakustaldia plaza batean.

Dena den, duela gutxi erabaki zenuen aizkolaria seriozitatez ekitea.

Aizkora ezezik futbolearen eta pilotaren artean aritzen nintzen lehen. Baina, 17-18 urte nituela, gustuko nituen kirol guztietatik aizkora lehenetsi nuen, eta gogor entrenatzen hasi nintzen.

Eta, badirudi seriozitatez eta esfortzuz hori hasi dela fruitua ematen.

Bai. Oso pozik nago. Nik lanean jarraituko dut, gogor, maila pixkana handitzeko, eta ea emaitza onak lortzen ditudan. Nire helburua, aizkolaria guztiena bezala, lehen mailara igotzea da.

◉ leitzaldea@hitza.info

Eskualdekoak, Euskal Herriko eta Nafarroako finalean

Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finalean Otaegi eta Otaño izango dira, eta Nafarroakoan Saralegi eta Pellejero

I. Terradillos

Tolosaldeko eta Leitzaldeko aizkolarientzat asteburu garrantzitsua da datorrena. Batetik, igandean Euskal Herriko Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako finala jokatu da Arbizun, 12:30etik aurrera, eta bertan Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra lehiatuko dira. Bestetik, bihar, Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finala izango da Donezteben, eta Ruben Saralegi leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra ariko dira txapelaren lehia, beste hiru aizkolariekin batera.

Euskal Herriko Maila Nagusiko finalari dagokionez, Joseba

Otaegi eta Unai Otañorekin batera, Floren Nazabal (Etxarri Aranzat), Aitzol Atutxa (Dima), Iñaki Azurmendi (Arriaran) eta Jose Mari Olasagasti (Igeldo) lehiatuko dira. Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko ebaki beharko dituzte.

Joseba Otaegik azzaldu duenez, kanporaketan bezala, bere burua ondo ikusten du. «Baina, oraingo honetan, egin beharreko lana desberdina da, eta hori asko nabaritzen da». Izan ere, kanporaketarekin alderatuz, aizkolariek lan gogorragoa dute orain egiteko, ia bikoitza. «Kanporaketan, lan txikiagoa da, beraz, arinago doa dena, eta horregatik aizkolariek parean aritu ginen; presioa handiagoa da», dio Otaegik. Hala ere, lan txikiagoetan agian hobe moldatzen dela dio: «uste dut prestatuago nagoela lan txikiagoetarako, baina, finalekoa bezalako lanetan lasai hartzea da gakoa, beraz, ez dago jakiterik».

Aurkariei dagokionez, Nazabal



Joseba Otaegi (irudian) eta Unai Otaño izango dira finalean. HITZA

ikusten du faborito nagusi bezala: «Txapela irabazteko besteen gainetik dagoela uste dut, eta ezustekorik gertatu ezean, berak irabazi beharko luke». Gainera, inguruan, finalera ailegatu diren guztiak «oso gogorrak» direla dio, baina, Azurmendi ikusten du bigarren posturako aukera gehien dituen aizkolaria bezala. Dena den, bera ahalki eta maila handiena ematera joango da.

Bestalde, asteburuko bigarren hitzordua bihar izango da, Donezteben, 17:30etik aurrera. Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finalean Ruben Saralegi eta Asier Pellejorekin batera, Iban Resano (Dorra), Xabier Mindegia (Beintza Labaien) eta Raul Castro (Urrotz) lehiatuko dira. Aizkolaria bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat ebaki beharko ditu. Lehen bi sailkatuak mailaz igoko dira, eta ondorioz, datorren urtean Nafarroako Txapelketako Maila Nagusian lehiatzera igaroko dira.

135 pertsonen hartuko dute parte Berrobiko Frontenis Txapelketan

Etzi, 08:00etan hasiko dira partidak Berrobiko pilotalekuan; aurten, berrikuntza bezala, talde mistoak ariko dira

Iñigo Terradillos Berrobi

Datozen lau asteburuetan frontenis partidek hartuko dute Berrobiko pilotalekua. Beste urte batez, Berrobiko Begi Gorri gazte-txeak Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa antolatu du, eskualdeko entzutetsuena. 21. urtea du aurten txapelketak, eta mutilak banaka eta binaka, neskek binaka eta talde mistoak lehiatuko dira.

Etzi hasiko dira lehen partidak, 08:00etan, eta 19:00ak bitarte ez dute pilotakadetek etenik izango. Igandean ere partidak izango dira, eta hurrengo bi asteburuetan izango dute jarraipena, hau da, hilaren 24an eta 25ean eta abenduaren 1ean eta 2an. Azken partidak abenduaren 7an jokatu-ko diren finalak izango dira.

Mutiletan, binaka nahiz banaka, kanporaketa sistema bidez egingo dute txapelketa, hau da, galtzen duena txapelketatik atgeratuko da. Nesketan, berriz, ligaxka formatua erabiliko dute, guztiek guztien aurka jokatu dute, alegia. Talde mistoetan, lehendabizi kanporaketa bidez egingo dute, eta lau bikote geratzen direnean ligaxka bidez egingo dute. Partida guztiak 30 tantora izango dira, eta irabazten duenak, hurrengo partidaren epaile lana egin beharko du.

Iazko kopuru bera

135 parte hartzaile izango ditu txapelketak. Mutiletan binaka 38 bikote ariko dira, eta banaka, berriz, 30. Nesketan, 4 bikote izango dira lehiatzen, eta talde mistoetan, berriz, 8 bikote ariko dira nor baino nor.

Antolatzaileek azaldutakoaren



Datozen lau asteburuetan frontenis txapelketako partidak izango dira Berrobiko frontoian. E. MAIZ

arabera, iazko kopuru antzekoa izango da aurten ere.

Aurtengo txapelketak badu berrikuntzarik, izan ere, estreina-koz talde mistoak lehiatuko dira. Horrekin, emakumeen parte hartzea bultzatu nahi izan dutela azaldu dute: «Emakume gutxi animatzen dira txapelketan parte hartzera, eta talde mistoak egiteko aukera jarrita, errazago egingo zituztela taldeak osatzea pentsatu genuen; gainera, Berrobiko frontoian neskak nahiz mutilak elkarrekin nahiz nahastuta ibiltzen direla frontonisean jokatzeko ikusten dugu».

Bestalde, parte hartzaileei dagokienez, urtero izen berak errepikatzen direla nabarmendu dute: «Urteik urtera txapelketan jende berak parte hartzen duela esan daiteke, eta jende berria animatu nahiko genuke».

Era berean, jendea animatu dute txapelketako partidak ikustera, «oso interesgarriak izaten baitira».

↓ Datuak

■ **Txapelketa.** Berrobiko pilotalekuan izango da. Etzi hasiko dira partidak, 08:00etan, eta 19:00ak arte jokoan ariko dira. Azaroaren 18an, 24an eta 25ean eta abenduaren 1ean eta 2an jokatu ditzuzte partidak. Finalak abenduaren 7an jokatu ditzuzte.

Sari garrantzitsuak

Pasa den urteko txapelketan Xabi Romero izan zen mutiletan banaka txapelduna, eta binaka, berriz, Niko Artolak eta Iker Lizardik irabazi zuten. Emakumezkoetan, Mireia Lezea eta Arantza Rodas izan ziren garaileak.

Ohi bezala, irabazleentzat sari potoloak izango dira. Halaber, finalerdietara iristen direnek ere izango dute saria: «Elkartean afora izango dugu, finaleko egunetan bertan, eta ondoren, Orioko jaiak direnez, guztiak hara joan-

■ **Parte hartzaileak.** 135 parte hartzaile izango ditu.

■ **Modalitateak.** Mutiletan binaka 38 bikote ariko dira; mutiletan banaka 30; nesketan lau bikote, eta talde mistoetan, 8 bikote.

■ **Partidak.** 30 tantora jokatu ditzuzte.

go gara», azaldu dute antolatzaileek.

Ion Ander Izagirren omenez

Ion Ander Izagirre herritar zenaren omenez egiten dute txapelketa 1996. urteaz geroztik. Hura hasi zen txapelketako antolatze lanetan, eta parte hartu zuen guztietan lortu zuen txapela janztea. Auto istripuz hil zen, eta orduetik, bere izena du frontenis txapelketak. Modu horretan omendu nahi dute bere lagunak.

o ibarraldea@hitza.info

→ Laburrak

Aurrekontuen inguruko bilera egingo dute bihar

LEITZA ▶ Leitzako Udalak datozen urteko aurrekontuak herri-tarren parte hartzearen bidez zehaztu nahi ditu. Hala, dagoeneko herritarrekin eta herriko eragileekin bi bilera egin dituzte aurrekontuen inguruan hitz egiteko, eta hirugarrena eta azkena bihar egingo dute, 19:00etan, Leitzako udaletxe-ko batzar aretoan. Bertan, herritarrek eta eragileek egindako ekarpenak aztertuko dituzte.

Pilota partidak izango dira bihar, Amazabalen

LEITZA ▶ Eskuz binakako DV txapelketako kanporaketa jokatu dute bihar, 20:00etatik aurrera, Leitzako Amazabal pilotalekuan. Etorbizuneko mailan Olan-ibarrondo Altuna eta Apeztegiaren aurka lehiatuko dira, eta senior mailan, Yoldi-Larunbe Bilbao-Landabururen aurka ariko dira. Partidak ikus-teko sarrerak 5 euro balioko du, eta urdaiazpiko bat eta bi ardo botilen zozketa egingo dute.

Haurren erasoan inguruko hitzaldia, Kukumikun

IBARRA ▶ Kukumiku Haurresko-lak erasoer buruzko hitzaldia antolatu du datorren asteazkene-rako, hilaren 21erako. Jon Perez Arriluzea haur psikologoa-ak emango du hitzaldia, eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua dago. Erasotzen duenarekin eta eraso jasotzen duenarekin nola jokatu jorratuko dute. Hitzaldia 17:00etan hasiko da.

Abenduaren 2an izango da Langostinoren irteera

IBARRA ▶ Langostino moto elkarteak jakinarazi duenez, azaroaren 25erako iragarri zuten irteera atzeratu egin dute. Abenduaren 2an izango da, eta Agurainera joango dira.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

KARMEN ARRIOLA GAINZA

Egoitz gelakidearen arria

Une latz hauetan
bat egiten dugu
Egoitz eta sendiaren
saminarekin

Azpeltiko Kaszola Kaszberko DBH 2 gela.

ASPEITIA, 2012ko azaroaren 15a

KARMEN ARRIOLA GAINZA

Atzo hil zen, istripuz

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Azpeltiko Kaszola Kaszberri Kooperatibako guraso, langile eta kaszolak
familiari elkartasuna adierazi nahi dute une zail hauetan.

ASPEITIA, 2012ko azaroaren 15a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Manilako zabortegiko bizipenak, Joseba Zabalzaren eskutik

Tolosako kultur etxean 'Welcome to the garbage mountain' erakusketa ikusi daiteke azaroak 20 arte

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako kultur etxean Joseba Zabalza argazkilari eta kazetariak Manilako (Filipinetako Errepublikan) Payatasko zabortegian ateratako argazkiak ikusi daitezke. *Welcome to the garbage mountain* izena du erakusketak eta azaroaren 20a bitarte ikusi ahal da. Erakusketa El Salvador Elkartasuna gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta du.

Txuri beltzeko irudiak dira, eta izenburua Zabalzak Payatasko zabortegira sartzean etzuan zuen lehen esaldia da: «Welcome to the garbage mountain! (Ongi etorri zaborraren mendira!)». «Ongi eto-



Erakusketan ikusi ditekkeen irudietako bat. JOSEBA ZABALZA

rri zikinkeria zapaltzera, zure denbora behartsuekin pasatzera, zakar honen kiratsa gurekin erdibanatzera, zure oinak ur lixibatuetan barneratzera...», gogoratzeta du Zabalzak.

«Oparotasuna jaun eta jabe den mundu honetan, zorioneko jendeak baztertzen dituen hondakinei esker bizi dira milioika

pertsona. Pertsona horiek hondakintzat hartzen dituztela ikustea eta gizarteak baztertu egiten dituela jakitea gogorra egiten da», gaineratu du.

Erakusketa kultur etxeko lehen solairuan ikusi daiteke erai-kineko ohiko ordutegian, hau da, 10:00etatik 13:30era, eta 17:00etatik 19:00etara.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberrak
jaunartzeak...

●●●● agurrak

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Literatur&Art astearen barruan, gaur, Bonberenean lone Gorostartzuk *Des egiten* poesia aurkeztuko du Leire ZUBeldiarekin batera, 19:00etan.
- **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, 18:00etan, seiokoak, puntua eta txintxon txapelketak, erretiratuaren egoitza; eta 19:00etan, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua Mikelasagastin. Era berean, larunbatean herri krosa egingo dute eta izena azaroaren 15a

baino lehen eman behar da, gazteek ikastolan eta gainotzeko kiroldegian.

- **Aduna.** Kultur ekitaldien barruan, gaur, axeri dantzari buruzko hitzaldia 19:30ean, kultur aretoan.
- **Amezket.** Kultur astearen barruan gaur, 20:30ean *Amaior gaztelua eta Nafarroako konkista* hitzaldia, Juantxo Agirrearen eskutik, kultur etxean.

ZINEMA

- **Tolosa.** Tolosako Leidor are-

toan, zine klubaren barruan, gaur, *Una vida nueva* filma eskainiko dute 19:15ean eta 21:45ean. Film labur bat ere eskainiko dute saioaren aurretik.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Luis Albisu tolosarraren margolanak erretiradunen tabernan.
- **Anoeta.** *Hodeien seme-alabak, giza eskubideen egoera mendebaldeko Saharan*, kiroldegian.
- **Larraul.** Koldo Jauregiaren aho

soinuen bilduma, museo etnografikoan, eta Karmele Pellegeroren margolanak, herri ostatuan.

- **Ibarra.** Felix Urrestarazuren margolanak, kultur etxean.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren *Bidaia bat txotxongiloen mundura*, Topic zentroan.
- **Tolosa.** *Welcome to the garbage mountain*, kultur etxean, El Salvador Elkartasuna taldearen eskutik.
- **Tolosa.** Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburu jauregian.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gaueko: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Aizkorriren magalean, pagoen artean Goierri ezagutu

ARRIETA HAUNDI NEKAZALTURISMOA

Presioa **150€**

www.mauka.eu berria



sarrerak

zozketa

"Frankismoaren aztarnak arakatzeko" liburuaren bi ale



berria **hitza**

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.